

LAN- KONTRATUAK EUSKADIN ETA NAFARROAN

Kontratu mugagabea

Behin-Behineko Kontratuak

Formakuntza eta aprendizgo kontratuak

Praktika ikastaroa

Kontratu mugagabea:

Kontratu mugagabea: Zuzenbide arrunteko kontratua da.

Kanporaketa indibidual edo kolektibo bat gertatzen bada, kanporaketa ordain-saria jaso dezakezu: enpresan lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko soldata, gehienez 12 hilabete. Kanporaketa gehiegikeriaz egin bada arau hori ez da betetzen. Kasu horretan lan urte bakoitzeko 33 eguneko soldata izango da, eta 45 egunekoa lan kontratua 2012ko otsailaren 12 baino lehen izenpetu dutenentzat.

Bestalde, dimisioa eman nahi baduzu, hitzarmen kolektiboaren xedapenak edo lan kontratuarenak segitu beharko dituzu. Abisu epea ez da oztopoa izaten, ezen gehienetan 15 egunak ez baititu gainditzen, eta abisu epea ez errespetatzeagatik eman daitekeen zigorra epe horretako egun bakoitza ez ordaintzea izan daiteke. Kontuz! Dimisioa ematen baduzu ez duzu langabezia-saririk jasoko!

Behin-Behineko Kontratuak:

Kontratu hauek behar berezi batzuei erantzun behar diete. Kasu batzuetan mugatuak dira, beste batzutan mugagabeak.

- **Obra eta zerbitzu kontratuak:** Kontratua lan baten gauzatzeari datxiko, eta behin-behinekoa izan arren, iraupena ez da zehaztua.

- **Kontratu ebentualak:** kontratu hauek merkatuaren gorabeherari erantzuteko eginak dira, adibidez enpresak normalean baino lan gehiago duelarik.

- **Ordezkapen kontratuak:** Kontratu hauek unean lanean ez dagoen baina lanera itzuliko den langile bat ordezkatzeko edo kontratatu berria den eta oraindik postuan ez dagoen bat ordezkatzeko eginak dira.

- **Denbora partzialeko kontratuak.** Ezin dute hiru urte baino gehiago iraun.

Kontratu mota guztiak SEPE-ren webgunean ikusgai dituzu: <http://www.sepe.es/>

LAN- KONTRATUAK EUSKADIN ETA NAFARROAN

Kontratu mugagabea

Behin-Behineko Kontratuak

Formakuntza eta aprendizgo kontratuak

Praktika ikastaroa

Formakuntza eta aprendizgo kontratuak:

Gazteak formatu eta lanbideratzeko kontratuak. Alternantzia erregimen batean egiten da, non ikasleak garai batzuk enpresan eta beste batzuk ikastetxean eta lanbide heziketa zentroan egiten dituen.

Praktika ikastaroa:

Praktika kontratua egiazko lan-kontratua da. Sei hilabete eta bi urte arteko iraupena duen kontratu mugatua da. Diploma lortu berri dutenentzat egina da eta diploma eskuratu denetik lau urteko epean egin daiteke. Nagusiarentzat baldintza erakargarriak ditu, baina halere gutxieneko batzuk bete behar ditu: lehen urtean hitzarmen kolektiboak antzeko postu batentzat finkatzen duen soldataren %60 eta bigarren urtean %75. Lansaria ezin da soldata minimoa baino apalagoa izan.

Kontuz! Praktika kontratua ez da Frantziako "stage" delakoaren baliokidea. "Stage" delakoa (praktika edo ikastaroa) existitzen da baina bere estatus juridikoa ez da argia. Normalean ikasketa azken urteetan ikasleek egiten dituzten praktikak izaten dira. Enpresa, ikastetxea eta ikaslearen arteko hiruko hitzarmen bat izenpetzen dute praktiken baldintzak zehazteko. Praktiketara dagoen pertsona batek halere ez du lan-kontraturik ezta langile estatusik ere. Hortaz ez du langileek duten gizarte-babes bera. Enplegatzailea ez dago soldata bat ordaintzera behartua.

Lotura: <http://www.sepe.es/>

2018ko abuztua